

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000002951

Espediente-zenbakia: 2025/IDA_ERA_0083**Xedea**

Homologaturik dauden euskalategi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berariazko Oinarri horien artean, homologaturik dauden euskalategi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzenak onartu ziren.

Bigarrena: Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 31n homologaturik dauden euskalategi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzen berariazko oinarriak aldatzea erabaki zuen.

Hirugarrena: aldaketaren erabakia 2023ko maiatzaren 12ko 91 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Laugarrena: homologaturik dauden euskalategi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten dirulaguntzak eskatzeko inprimakiak prestatuta daude, euskeraz eta elebiz.

Bosgarrena: gastu honetarako 5000€ daude Euskera Sailaren 01400 33540 4810315 partidan.

Seigarrena: gastu honek beharrezko atxikipena eginda du (2025/000352).

Zazpigarrena: udaleko kontu-hartzaileak 2025eko maiatzaren 14an egin zuen fiskalizazio txostena, aldekoa.

Argudioak

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz zinegotzi delegatuak dauka eskuordetuta.



Erabakia

Goian adierazitako kontuan hartuta, honakoa erabaki da:

LEHENENGOA: homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orriak onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko maiatzaren 12an argitaratutako oinarrien arabera.

BIGARRENA: 5000€-ko gastua onartzea Euskera Sailaren 01400 33540 4810315 partidaren pentzura.

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean argitaratzea.

LAUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi hau argitaratzea.

6.1.3. HOMOLOGATURIK DAUDEN EUSKALTEGI EDOTA BARNETEGIETAN, HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK EGITEN DITUZTEN BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ZEHATZAK

ESPARRUA: EUSKARA

UDAL SAILA: EUSKARA

INSTRUKTOREA: Euskara teknikaria

BALORAZIO BATZORDEA: Konparaziozko balioespenik ez denez egingo, ez dagokio.

DIRULAGUNTZA EBATZIKODUEN ORGANOA: Tokiko Gobernu Batzarra

EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA: Ebazteko eta jakinarazteko hiru hileko epea egongo da, eskaerak

aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

DIRULAGUNTZARENLERROA: Euskararen ezagutza areagotu eta erabilera sustatzea.

KODEA: 2025/ IDA_ERA_0083

AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU KOPURUA:

- Aurrekontuan aurreikusten dena urte bakoitzean.
- 2025ean 5000€ aurreikusten dira 01400 33540 4810315 partidan.

HELBURUAK Euskara ikasten ari diren Bermeoko bizilagunei erraztasunak ematea, matrikula ordaintzea eragozpena izan ez dadin euskara ikasteko

EPEAK:

- Eskariak aurkezteko epea, hilabetekoa izango da, hain zuzen, urrian.
- Justifikazioak: eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren bitartez.

BALORAZIO IRIZPIDE ZEHATZAK:

- Bermeon erroldatuta egotea.



- Matrikula egiten den egunetik ikastaroa bukatzen denera arte emaniko orduen %80 edo gorako asistentzia edukitzea. Nahitaezko betebeharrangatik ez joatea edo gaixotasun-bajak erakunde eskudunak justifikatu beharko ditu.
- Hasten den ikastaroa amaitzea. Ezin da urratsa edo euskaltegia aldatu erakunde eskudunaren baimenik izan gabe.
- Dirulaguntzaren emakida dakarren baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera behar diren jarduketak egiten baimentzea eta Bermeoko Udalak eskatzen dion informazio guztia ematea.
- Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatea.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK Diruz lagunduko direnen eta udalaren arteko ahazko eta idatzizko harremanak, ahal den kasu guztietan, euskaraz bideratuko dira. **ESKATZAILEAK:** Onuradun izango dira homologaturiko euskaltegi edo barnetegietan euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten ari diren pertsona fisikoak.

Dirulaguntza horietatik kanpo geratuko dira graduondoko, doktorego, master eta karrerarako ikastaroak. Halaber, ez dira diruz lagunduko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak arauturiko irakaskuntza (Hizkuntza Eskola Ofizialak, esaterako), ezta beste erakunde batek antolatutako ikastaroak ere, esaterako IRALE eta HAEEn bidezko ikastaroak.

DIRUZ LAGUNDUKO DIRENKONTZEPTUAK:

- Oinarrizko Errenta edo Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen duten eskatzaileentzat: gehienez, matrikularen %70.
- Dirulaguntzaren xede den ikasturte osoan langabezia dauden langabetuentzat: gehienez, matrikularen %60. Zati batean bada, modu proportzionalan aplikatuko da.
- Gainerako ikasleentzat: gehienez, matrikularen %50

Ikasle bakoitzak, gehienez, 300 €-ko dirulaguntza jaso ahal izango du ikastaro bakoitzeko.

Urtean zehar egin daitezkeen ikastaro guztiengatik ikasle bakoitzak, gehienez, 500 € jaso ahal izango ditu.

PROZEDURA ETA AURKEZTUBEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Dirulaguntza emateko prozedura: konkurrentzia lehiakorra izango da, baina konparaziozko baliospenik egin barik.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste edozein dirulaguntzarekin, edozein izaerakoa bada ere. Dirulaguntza horiek beste administrazio batek, zein entitatek emandako dirulaguntzak izan daitezke, beti ere, guztiak batuta diruz lagundu daitezkeen kostuaren %100 baino gehiagokoa ez bada. Gain-finantzaketarik balego, diruz lagundutako kostuaren mugaraino murriztuko litzateke dirulaguntza.

Baldintzak betetzen dituzten eskariak Tokiko Gobernu Batzarrak onetsiko ditu, instruktoreak egindako txosten teknikoaren ostean.



Deialdi honetan aurreikusi ez direnak instruktoreak eta zinegotzi delegatuak aztertu eta ebatziko dituzte, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera-orria beteta
- Nortasun agiriaren fotokopia
- Langabeek, lan-bizitzaren ziurtagiria.
- Oinarrizko Errenta edota Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen dutenek, laguntza hori jasotzen dutela egiaztatzen duen agiria.
- Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria. Barnetegien kasuan, bakarrik ikastorduen matrikulari dagokion kostua.
- "Ikaslearen ibilbide osoa-" agiria. (www.habe.euskadi.eus)

Beste dirulaguntza eskaerarik egin bada, udala baimenduko da HABErekin dirulaguntza horri buruzko informazioa eskuratzeko.

AURREIKUSITAKO KOSTUAK PROGRAMA HONETAN: Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera.

2025ean 5000€.

JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK Bermeoko euskaltegietan egindako matrikuletatik, udalak diruzlagundutako matrikula kopurua

Diruz lagundutako matrikuletan, udalak diruz lagundutako ehuneko **ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:** Euskara ikasteagatiko dirulaguntza, eskaera-orria

GENERO ERAGINA: Bat ere ez

1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida

Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa.

EZ

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E900131BA000U4R9N5X4D5L2

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/05/2025 16:22:14

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0083

Fecha: 30/04/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E900131BA000U4R9N5X4D5L2

